

Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 27. zenb. 1996ko iraila. 100 pzta.



Etxabetarrei omenaldia



Festak

Udako festak ere
joan dira, San
Migelekoak falta
zaizkigu


Elkarrizketa

Iñaki
"Txanbolin",
sistema
honekin erreta

Lehiaketak

Errenteriako
Patxi Gallegok
irabazi du
komiki lehiaketa

Argazkiko batek
utzitako argazkia




SAN PEDRO ESKOLA

1971n jaiotakoak ditugu mutil guzti hauek, aurten beraz 25 urte beteko dituzte ia denek.

Terin andereñoaren ondoan daudenak honako hauek dira goitik hasita, ezkerretik eskubira:

- 1. lerroan Nicasio, Jon Joseba, Jota, Iñigo Artetxe, Miguel Angel Sendino, Joxu Aizpurua, Latas eta Alfredo.
- 2. lerroan Romu, Andoni Tapia, Carlos Blanco, Luis M^o Egaña, Ibon Etxabe, Xabi Arrizabalaga, Antxon eta F.J. Garcia Pato.
- 3. lerroan Manu Albizu, Iñaki Arrizabalaga, Ignacio, Iñaki Etxabe, Igor Etxabe, ?, Jose Antonio Sanchez eta Juanjo Zubia.
- Eta 4. lerroan Silva, Carlos Cintero, Centeno, Paulo, ?, Dani Casquero, Joxe Inaxio, Aguado "Pollo" eta Andoitz Amilibia.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

GEG, Natur Taldea,

Miriam Romatet, Aintzane

eta konpainia, Mikel Lizaso,

Imanol Manterola, Jon

Manzisor, Dani Carballo, Josu

Egaña eta Arantxa Eizagirre,

Xara, Ismael, Arte Taldea, Aitor

Leiza, Iñaki Unanue, Inaxio

Manterola, e.a.

publizitatea

861056 tf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.**

Uda Musikala
**Lucia
Lakarraren
arrakasta**

....7. or.



Festak
**Joan dira
San
Bartolomeak
ere**

...16 or.



Izerdi patsetan
**Bermiotik
Sokoara
batelean**

.... 28. or.

Udazkeneko pertsona

Ez al diozu zuk inoiz norbaiti minik egin, eta aldi berean ez al dezu zuk norbaitengandik minik jaso?

Askotan gauzak izango bagina bezala tratatzen degu elkar, baina ez al gera pertsonak?

Oraitxe bertan, hau irakurtzen ari zeralarik, begiratu zure ingurura, pertsona bat ikusiko dezu seguruenik. Ezin al dezu besterik gabe maitatu eta apreziatu?

Gu ez gera gauzak, eta gauzak emango ez diguten zerbait behar degu, pertsonak emango diguten zerbait behar degu: laguntasuna, **maitasuna** eta errespetua.

Udarako ateak ixten ari dira eta beste batzuk irekitzen. Udarak berez askatasuna, zoramena, pletorexia ekarri dizkigu eta hauek udazkeneko hostoen erortzea bezelaxe ihesten zaizkigu. Baina zergaitik? Bizi gaitezen, eroak izan!

P.D. ETA EZ AHAZTU: PERTSONA BAT ZERA, ETA HORI GUTXI AL DA? AH! ETA BIZI.



*Esther eta Iratxe
"Neska Txikiak"*



**PREMAZKO
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

ILARGIA SEINALATZEN DUT, EZ GERA BEHAZARI BEGIRA, MONTSE!

Mamia gogoratu ahal izateko urrunegitik datorren eztabaida honetan, suspenditu egin nau maestrak. Luze --luzeegi-- erantzun arren, ez omen dut galderarik garrantzitsuena erantzun: pintadak, mehatxuak, eta abar demokrazia ziren galdetzen zuena alegia.


Egia da ez nuela erantzun. Izan ere, ez nuen uste erantzun beharra zegoenik. Gaiaz kanpo, era horretako galdera maltzur eta erretorikoak ez dira inork erantzuteko egiten. Ez dira bestearen iritzia jakiteko egiten. Bestelako argudioen faltan, kritika egin duena deslegitimatzea eta eztabaida desbideratzea izaten dute helburu.

Horregatik ez nuen erantzun. Udal funtzionamenduaz ari nintzela kontutan hartuz, beste zein eratan uler daiteke udalgintzarekin zerikusirik ez duen galdera hori?

Adibide xelebreak aipatuz, kritika baten aurrean kritikagileari begira geratzea, ilargia seinalatzen denean behazari begira geratzearekin parekatuko nuke nik EAJko zinegotziaren jarrera.

Nik baino hobeto erantzungo du Montsek bere galdera. Galdera sinpleek erantzun sinpleak eskatzen dituzte, eta ni ez naiz gauza ikusten sinpletasunez erantzuteko. Nik, hasteko, mehatxuak, pintadak, eta abar, demokrazia ez direla erantzungo nuke; igeri egitea edo paseatzea ez diren bezalaxe. Gero, demokrazia

GUTUNAK



gobernatzeko era bat --gehienentzat txarren artean onena-- dela gehitu beharko nuke. Eta azkenik, demokratikoki hartutako hainbat erabaki guztiz zapaltzaileak direla esplikatu beharko nuke. Beraz, dudarik gabe, luzeegia izango litzateke nire erantzuna. Batik bat, komunikabideek eskeintzen duten "formazioari" esker, HBkoak deskalifikatzea hain onartua eta sinplea gertatzen den une honetan. Amaieran, ezberdintasunak izan arren, herriaren alde elkarlanean ari gaitezkeela dio Montsek. Hala bedi!

Migel Aperribai.
HBko zinegotzia

OIKIARREI GUTUNA

Kaixo oikiarrak!!
Aurten ikusi dut lehenengo aldiz oilasko biltzean egiten dena eta ez zait batere egokia iruditu herri guztiaren aurrean oilasko batzuk sokatik zintzilik jarri, igitai bat eskuan hartu eta asto gainean joanda lepoa moztea. Kontuan edukiz festak direla, eta jendearen kondizioa ikusita, lepoan asmatu aurretik ia beste atal guztiak txikitzen dizkiote, eta ez zait bidezkoa iruditzen oilaskoei horrelako tratua

ematea. Horregatik oikiarrei eskaera bat egin nahi nieke: hurrengoan oilasko biltzea egin nahi izanez gero oilaskoak hilda zintzilikatzea. Eskaera onartuko duzuelakoan, agur.

Aif.
72.458.566

AMA, NIK ERE ARTISTA IZAN NAHI DUT!

Ah! Artea. Zein erreza den artea egitea. Hala dirudi behintzat Zumaiako tabernetan bira bat egin eta gero. Zenbat artista dagoen Zumaian! Zenbat arte klase! Argazkia, eskultura, pintura, denetik! Taberna batean sartu, eta soinekotxo batzuk. Beste batean sartu, eta boda baten argazkiaren argazkia (eta gainera borrosoa). Batean sartu, eta egur haundi batzuen tartean argazki txiki batzuk.

Ondorengo batean ez-dakit-zer-den gauza bat: borobiltxo erdi bat lauki gris baten barruan. Eta tartaren ginda bezala, orain dela gutxi Oxforden egon den edalontzi erakusketa. Ze polita dena! Tristeena da ez dudala astorik ere ulertzen, eta arte taldeko norbaiti galdetzen badiot inuzente bat bezala geratzen naizela. Eta klaro, hobe inungo kexarik ez azaltzea, ze orduan inuzenteaz gain analfabeto bat naizela konturatuko naiz. Gauzak horrela nik ere nire txokoa nahi nuke hurrengo urterako. Ez dakit zer, baina ordurako bilatuko dut aurkezteko zerbait: ibilitako kaltzetinen kolekzioa, kutxara eta tenedoreekin egindako konbinaketa zoragarri bat...

Artistagai bat.
44.876.987

Habana
auto

Mekanika eta
karrozeria
Axular ibiltokia, 14 - 86 00 70
Zumaia

ROSI
GARBIKETAK

• Etxeak eta dendak
• Enpresa eta auzo lanak
• Europa garbiketa eta tintaketa
Basadi 3-A
Tlf. 861670

BELARDENDA
SIWA

Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012



Kopla berriak arteari jarriak

JON MANZIDOR

-1-

Txikiterua nintzan
jakin nuen arte
gure artean zala
nahi adina arte

-2-

Tabernako barratik
tortila pintxo bat
ahoa sartu eta
egin det body-art

-3-

Kontzeptual aulkian
eseri eta pop
Coca Cola edan det
trago batean klok!

-4-

Gero komuneraino
Duchamp ikustera
artearen kontenplatu
txixa egitera

-5-

Erreka hau bai dela
espresionismua
behintzat ondo lasaitzen
du organismua



Belen Uranga

BASAMORTUTIK

Denis Langloisek, duela gutxi egin zioten elkarrizketa batean zioen: «nire kritikek euskaldunei min egingo badie ez ezazuela publika». Nirea eginez: ondorengoarekin norbait poztuko bada ezkuta ezazuela!

Izan ere, estilo ariketak alde batera utzita, ez dut inpartzialtasunean sinesten, eta hau, aspaldidanik eremu neutrotik alde batera dagoenaren ikuspegia da.

Hamar urte bada jada (utziko ote didazue zenbakia borobiltzen?) etxetik alde egin behar, eta lau hormen artean bizi dela (beste guztiak buruan ditudalarik hurbilen ukitu nauenean pertsonalizatzea lizentzia bat besterik ez da). Bitartean, gertakari pozgarriak bakarrik gogoratu: Amets, Alex, Aritz, Ane, Ion, Unai, Amaia, Irati, Amaiur, Ioseba, Iñaki, Itsaso, beste Itsaso, Xuban, Julen, Aitor, Maitane... etorri dira. Eta bidean daudenak, e Xabi?

Gaur ere bisitan sartu aurretik betiko urduritasuna eta izerdia, beroa eta hotza. Badirudi nire buruan zenbait gauza ulertzea galerazten didan sistemaren bat eratu dela. Horrela, behin eta berriro, erresistentzia metodoa zertan den entzun badiot ere ezin dut gogoan hartu. Itzuleran eguna nola ematen duen eta urte osoan isolaturik egon ondoren sano egotea edota irrifarra gordetzea nola den posible galdetzen didazuenean, nire erantzuna sorbaldak altxatzea izan ohi da: ez dut ulertzen.

Basamortutik aldentzean, oinetatik begietara estaltzen nauen zirrarak justifikatzen du 1.000 km bolantean bakarrik emana, beste norbaiti bidai bakoitzean kotxea eskatu beharrak sortzen duen egoneza (gaurkoan, eskerrak Mari Frani), hila joan, hila etorri patrikatik ordaintzen didaten lagunaren elkartasuna (trukean BBVko albornoza zozketatu duten horiena, bide batez), eta hamaika aldiz amorrazi nauen bizitza pribatuaren publikotasuna.

Izan ere, hamar urte asko da: Mugimendu eskaera, Parisera bidaiak, dirua, denbora... Baina utzidazue irudi bat ekartzen. Hau, atentzio ukittua da: hogeita metro karratuko kristal blindatua; erdian, bakarrik, 80, 100, 200? urteko kondinari aurre egin behar dion laguna, eta bigarren kristalaren alde honetara bi talde: batean, bere arreba, etxean gordetzeagatik urtebete kartzelan eman duen bretoa eta 3 lagun. Bestean ABC irakurritz bibote estua duten bele dozenardia. Gainerantzean gela hutsa. Datorren hilaren 16an (abuztuaren 27an idazten dut) ez dela berdina izango jokatu dut.

Nire partzialtasunak norbaiti belarri atzean hazkura sortzen badio eskatu diezadala niri azalpena.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412


MATE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407





Azkenengo ekintzak oraindik ere burutu ez direnean, IX. Arte Erakusketaren balantzea egin behar dela iruditu zaigu. Hasteko, erakusketak aipatuko ditugu: eskultura lehiaketetan aukeratutako maketena izan zen arrakasta haundiena lortu zuena, zumaiarren jakinmina izugarria zenez jendez gainezka izan genuen aretoa 15 egunetan.

Hurrengo Arte Ederren Fakultateko ikasleena izan zen. Erakusketa honek eztabaida piztu zuen, txixa egiten ari zen mutila zela eta. Arte Taldeko partaideak harrituta geratu ginen gai horien artean jendeak duen morboa ikusita. Paisaiak, erretratoa eta loreak pintatzetik aparte beste gai asko daude munduan, eta artea ez da bakarrik politta dena errepresentatzeko.

Arantxa Santamariaren eskulturak bete zuen abuztuaren 2tik 22ra Oxfordeko aretoa. Ez zen proposamen erraza izan, objektu haietara hurbiltzeko aurreiritzi franko alde batera utzi behar genituen. Egiten duena errealitatearen itzalak sortzea da, baina ez dira ilunak, orokorrean itzalak izaten diren modura, argiak eta alaiak baizik. Mundua ezagutzeko beste bidea da, gauza arrunten edertasuna bilatzen duena, inguratzen gaituen guztian dagoen edertasuna.

Horregatik egunero topa ditzakegun objektuetan jarri du arreta eta erakustaretorera eraman ditu: kopak, edalontziak, plater txikiak, e.a. kontestutik atera eta forma hutsak bihurtuz, eskultura modura ikusi behar ditugu.

Azken garaian gardentasuna erabili du Arantxak eskultura egiteko, beiraren atzean edo barruan material ezberdinetan egindako gauzen siluetak sartuz. Gardentasunaren erabilera, estaltzea baina argia pasatzen duena, beirazko objektuek sortzen duten itzal ia nabariezina, e.a. dira bere lanaren ardatzetako bat.

Hala ere, argi-itzal bikoiztasunak, negatiboa eta positiboaren forma hartzen du beste lan batzutan, hala nola, sarrerako igeltsuzko eta guatazko eskulturetan.

Hurrengo Tabernarte da arte erakusketaren beste ardatza, eta aurtun 13 tabernatan daude ikusgai Zumaiako artisten lanak. Proposamen ezberdinekin egingo dugu topo: Kabin Jon Manzidorren begirada eta irudiaren inguruko hausnarketa, Uzkudunen forma hutsa eta egilearen autoerrefentziak lotzen dituen Dani Carballoren pieza, Zumean Joxeren argazki hutsetik irtetzeko gogoia, Goikon suekoaren akuarelak, Zallan Keixetaren kuadro montajea zatia eta osotasunaren arteko elkarrizketa, Gure Txokoan Arantxa Santamariaren mundu berezia, Kalarin argazkigintzaren begirada miopea, errealitate borrosoa (guztia ez al da hala?), Inpernupen Ander Hormazuriren pintura materikoa eta errepikatzen den irudiaren arteko elkarketa, Nikolen J.R. Llaboriren kalitate haundiko argazkiek erakusten digute erreportaietatik aparte argazkigintzak beste balore batzuk ere badituela (kolorea, testurak, e.a.), Ihintzan eskulanaren trebezia, Saioan Juan Luis Blancok Edinburghetik bidalitako postalak guztion partaidetza eskatzen du, Leizen Igor Zendoiauren urrats desberdinak ikusteko aukera, figurazio bi mota, materia informala jasotzen duen kuadroa eta azarrak, mantxa eta materiaren arteko jokuak egiten duen seriea, azkenik Ganbaran Roberto Gutierrezek pinturari hitz egiten uzten dio, kuadro gainean dagoen pigmentoak aldaketa ia nabariezina jasaten du, beste kolore indartsu batek eztanda egin arte.



Hauxe izan da aurtengoa, datorren urterarte zai egon beharko dugu gure artisten lanen ibilbidea ikusteko. Hala ere, irailaren 4an eta 5ean artista izateko aukera izan duzue antolatu dugun pintura tailerrean, eta emaitzak 7tik 10era ikusiko dituzue Alondei Zaharreko aretoan.

Arte Taldea

*Jesuskoa
Faletxea*

Txoa 86 17 39 • Ukitia Zumaiain


Paki 

Belardenda

OSASUN NATURALA

Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Lucia Lakarra, bakarra


Uda Musikaleko ekitaldien barnean, oso bisitari berezia izan dugu aurtengoan, Marsellako Ballet Nazionaleko izarra den Lucia Lakarra zumaiarrarena. Bi egunetan izugarrizko arrakasta izan zuen gure artean.

Maria eta Jose ikastetxeko aretoa leporaino bete zen abuztuaren 2 eta 3an izan ziren emanaldietan, eta jende asko kanpoan geratu zen, dantzari eder hau ikusteko sarrerak egun batzuk lehenago agortu baitziren.

Bertaratu ziren 1.200 lagunek Luciak eta Cyril Pierrek emandako ikuskizuna dastatu eta gozatu ahal izan zuten. Askorentzako, gainera, ballet mundura egindako lehen hurbilpena izango zen.

Luciaren esanetan *"Balleta ez da ententitu behar, gozatu egin behar da, eta Zumaiako jendea oso gustora geratu dela uste dut. Askok konpainia osoaren emanaldia ikustera joango direla esan didate"*.

Ilusio berezia egiten du nork bere herrian aktuatzeak eta horrelaxe



Luciak eta Cyril Pierrek erakustaldi bikaina eskeini zigten.

aitortu digu Luciak: *"Oso inportantea izan da niretzako, zumaiar asko ni ikusi gabe zeudelako. Emozio haundia sentituta dut, eta jendearen berotasuna. Politia da herritarren aurrean dantza egitea"*.

Hamar bat egun egin ditu Luciak gure artean, eta tarte horretan zumaiarren txalo eta zorionik beroenak jaso ditu. Berehala joan

beharra izan zuen, ordea. Lehenbizi Japonera joan behar zuen, gero Florentziara, eta handik Milan, Paris, Lausana eta mundu guztira.

Oraingoz Marsellan oso gustora dagoela aipatu digu Luciak, eta bertan geratuko da bi urtez. Baina konpainia askotatik deitu diote eta *"karrera honetan mugitu beharra dago, eta gerora ikusiko dut zer egin"*. Zortetik onena opa diogu. ■

EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

IRIBAR

OKINDEGIA - KAFETEGIA

Tlf: 143361



Gosarietan prezio bereziak

Maiaur

jolastokia



San Telmo ermitako erretaula eraberritu dute

Uztailean zehar IROA institutuko ikasleak, Arrantzale kopraiaren babesarekin, San Telmo ermitako erretaula eraberritzen aritu dira. Oso belztuta zegoen XVII. mendeko egurrezko erretaula barrokoa, eta eraberritzerakoan pintura zahar batzuk aurkitu dira azpian.

Bederatzi ikasle aritu dira guztira, aditu batzuen esanetara lanean. Egurra garbitu ondoren, erretaulan falta ziren edota egoera eskasean zeuden piezak aldatu ziren, 179 guztira. Pieza hauek egiteko gaztainondoren egurra erabili da.

Aldare ingurua garbitzen ari zirela ikasleak harrিতa geratu ziren, pintura batzuk aurkitu baitzituzten, marroi koloreko bi kapen azpian. Pintura hauek 1876koako dira, eta urre pixka bat ere badute. ■



Lan hauek erretaula askoz ederragoa bihurtu dute.



BISITARI BEREZIAK. Uda honetan oso bixita berezia izan dugu, Sahara aldetik etorri baitzaizkigu **Fatimetu** eta **J'amila**. Hilabete egin dute gure artean, bi familiak hartuta, eta hauen inguruan ibili direnek badute neska polit hauen kantu eta dantza alaien berri. Eskuminak hemendik, eta ea hurrengo urtean ere zuen lagun batzuk inguratzen zaizkigun.

laburrak

Lanbide hastapena

Lanbide Hastapenerako Zentruan izena emateko epea zabalik dago eta hilaren 27an amaituko da. Ikasketak hauek 16tik 20 urte bitarteko neska-mutilei begira antolatu dira, bereziki eskola-graduatua lortu ez edota ikasketak utzi eta ofizio bat ikasi nahi dutenentzat. Ikasturte honetan bi aukera egin daitezke: **Eraikuntza** (igeltsaritza eta margoketa) eta **Ostalaritza** (sukaldaritza eta jantoki-tabernetako zerbitzua).

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, jo ezazue Gizarte Zerbitzuetako bulegora.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



Mendaro Martiela 3
TEL: 14-33-95
Zure INFORMATIKAKo Denda

ERTZ INFORMATIKA

- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETTEK

Komiki onena, Patxi Gallegorena



Errenteriko **Patxi Gallego** 23 urteko gaztea izan da Baleikek antolatutako II. komiki lehiaketako I. saria eskuratu duena. **Koldo Landaluce, bilbotarra baina Zumaian bizi dena**, izan da bigarren saria lortu duena eta **Jon Ander Garziarentzat** izan da zumaier onenaren saria.

Patxiren lana aldizkari honen erdialdean ikus dezakezuen da, "Espantajoren ordu latzak" izenburuduna. Lan honegatik 25.000 pezetako saria jaso du.

Koldok 15.000 pezeta jaso ditu "Tasterdai" izeneko komikiagatik eta kopuru bera izan da Jon Anderrek "Itzaldu zure telebista" lanarekin poltsikoratu duena.

Sari-banaketa abuztuaren 31n egin zen Sanjuan Iturri ondoan, ekitaldi

xume eta intimo baten bidez. Eta egun horretan Kuadrilen Eguna zenez txanpainaren orde zerbata pixka batekin ospatu zuten irabazleek, ez dakigu zer ordu bitartean. Zorionak!

Epaimahaikoen iritziz maila oso ona egon da aurtengoan, eta nahiko lan eta eztabaida izan dute saridunak aukeratzeko orduan. Guztira 8 lan izan dira jaso ditugunak, 4 kanpokoak eta gainontzekoak herritarrek egindakoak.

Sarituena lanak, eta beste batzuk ere bai, hurrengo zenbakietan argitaratzen joango gera. Eta horrela, gure betiko komikigileei atsedeen pixka bat emateko aukera izango degu. ■

laburrak

Helduen heziketa (EPA)

Zumaiako EPA-HHI helduen heziketarako zentruan matrikulatzeko epea zabalik dago eta hilaren 22an itxiko da.

Bertan honako aukera hauek daude: irakurtzen eta idazten ikastea, nor bere ezagupenak eguneratzea, eskola-graduatu lortzea eta ekintza kulturaletan parte hartzea (museoetara irteerak, ikustaldiak, erakusketak, ikastaroak eta abar)..

Zentrua ofiziala da eta dohainekoa. Izena emateko zine gaineko lokalera agertu edota deitu 143127 telefonora.



Alazne (Jon Anderren orde), Koldo eta Patxi, gustora saria jaso ondoren.

ZUMAI A

AUTO-ESKOLA

* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
 * Praktika eta azterketak Azpeitian
 * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018
20750 ZUMAI A

AIZPURUA

L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
 Telefonoa: 861569
 20750 ZUMAI A

Badira dagoeneko 3 urte Iñaki Txanbolinek Zumaia utzi zuela, Barreirinha izeneko herri amazoniar batera bizitzera joateko.

Orain milioi batzuen truke ere ez litzateke bueltatuko. Beraz, badirudi leku aldatzea

Iñaki "Txanbolin"


Honi buruz pentsatzen duen guztia kontatu digu, elkarrizketa luze bezain interesgarri honetan.

mesedegarria suertatu zaiola. Amazoniarren bizitzak txundituta utzi du, hemengo sistemaz berriz gero eta urrunago sentitzen da.

"Itxurakeria asko ikusten dut jendearengan"

ZERGATIK ALDE EGIN ZENUEN EUSKAL HERRITIK ETA ZERGATIK AMAZONASERA?

Arrazoietakoa bat, baina ez garrantzitsua, nere emaztea izan zen. Ez zen hemen bizitzera inoiz ohitu. Hemengo jendearekin tratu oso ona zuen, baina ez zegoen batere gustora hemen. Horretaz gain, nik ere banuen egonezin hori. Oso erreta nengoen hemengo sistema eta gizarte-motarekin. Nerekiko pentsatzen nuen, erakartzen ez nauen gauza batean egon behar al dut 65 urte lanean? Horregatik alde egitea erabaki genuen, eta zorionez ederki doakigu dena.



AZALDUKO AL DIGUZU NON KOKATZEN DEN BARREIRINHA ETA ZER EZAUGARRI DITUEN?

Barreirinha Amazonas ibaiaren adar diren Andirá eta Paraná de Ramosen artean dagoen herri bat da. Irla bat da, eta inguruko herri guztiak ere irlak dira. Manaosetik itsasuntziz 22 ordu behar dira bertara iristeko. Hango bizimoduak ez du inolako zerikusirik hemengoarekin. 17.000 biztanle inguru ditu, eta gehienak mestizoak dira (zuri eta indigenak), %80 inguru, eta *cabloco* izena ematen zaie.

Zurien artean espainiarren ondorengoak ere badaude, eta espainol

autokontsideratzen dira eta ni ernegatu egiten naute. Behin hauetako bat etorri zitzaidan ni ere beraiek bezela "latinoa" nintzela esanez, eta pikutara bidali nuen ni euskalduna nintzela eta "latino" usainik ere ez nuela esan ondoren. Ez dit gehiago inoiz hitzik egin.

ZER NOLAKO OHITURAK DITU BERTAKO JENDEAK?

Nik janaridenda bat daukat eta egunero sei terdiak aldera irekitzen dut. Jendea ogia erostera, kafesnea hartzera etortzen da eta eguneko erosketak egiten ditu. Premiazkoena bakarrik erosten dute, ez baitute beste ezertarako dirurik. Ez dago

ekonomiarik, ez fabrikarik, ez industriarik; haroztegi bakanen bat badago, baina garatu gabea, oso oinarritzakoa, hala ere zura ederki lantzen dute. Oso lasai egiten dute lan, ez dago hemen bezelako kompetibitatekerik. Dena kontrastea da hemengo bizimoduarekin alderatzen badugu. Han ez dago hemen dagoen kontsumismoa, eta adibidez, arrantzaleak egun batean joango dira arrantzara eta hurrengoan beharbada ez, baina gutxienez ez dira telebista edo etxea ordaintzeko daukatela pentsatzen egongo. Norberak bere etxea egiten du eta argi eta urik gabekoak ere badaude; eta eremu indigenan hori ere ez. Eta nekazaritzarik ez dago ia, egia esan, amazoniarrak nahikoa alferrontziak baitira.

"Herri indigena oso ona da, legalak dira, baina engainatu egiten dituzte"

Herrian bizi diren indigenak, Sateré-Mahoéak ez dira indigena kontsideratzen, badago indigena izateaz lotsatzen den jendea. Nik ez dut ulertzen, esaten diet ez dagoela



Loitz

% 10eko beherapena eskola-material guztian

Erribera 4
Tel./Fax: 143422



SUKALDEKO ALTZARIAK


DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behea
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA
(Guzuzkoa)

harrotasun handiagorik bakoitzak bere arraza eta hizkuntza izatea baino. Azkenean espainiar eta portugesez egin zuten gauza bakarra lapurtu zieten guztia lapurtu eta buruan sartu zieten guztia sartzea izan zen. Hori bai, eremu indigenan bizi direnak oso harro daude indigenak izateaz. Nire emaztea, eremu indigenan bizi ez den arren, oso harro dago Sateré izateaz; gainera Sateré komunitatea babesteko erakunde bat antolatu du eta festak egiten ditugu horren alde.

"Oso erreta nengoen hemengo sistema eta gizarte-motarekin"



Itinakik garai onean alde egin omen zuen. Hara itzultzeko desiratzen zegoen orain ere.

NOLAKOA DA EREMU INDIGENAKO BIZIMODUA?

Ez naiz bertan bizi izan, baina handik igaro naiz eta badakit nola bizi diren. Ehiztari eta arrantzaleak dira, ehiza zertxobait desagertu den arren. Eta ez da indigenen errua izan, indigena ez baita naturaren hondatzailea; indigenak badaki bere bizia dela eta babestu egiten du natura. Gero gizaki zuria iritsi eta gauza asko hondatu ditu. Beren herria badute, gutxienez. Han *erreserba* deitzen diote, baina izen honek nazka ematen dit, azken finean beren herria delako eta izen honekin badirudi zoologiko batean sartutako animaliak kontsideratzen dituztela. Bestalde nekazaritza badute, baina oso eskasa. Eta zuriei ere ez zaie interesatzen garapena bultzatzea, indigenak orain dauden bezela nahi dituzte.

Hor dago FUNAI erakundea; hauek indigenen kontura bizi dira eta penagarria da. Berez indio brasildarren ordezkari dira, baina txerrikeria bat da;

hauek indigena ezjakina izatea nahi dute, bere eskualdean sartua eta ez garatzea, horrela ederki bizi baitira besteen kontura. Herri indigena oso ona da, legalak dira. Denborarekin, beren konfiantza merezi duzula ikusten dutenean, orduan eskaintzen dizute. Jende ona da, eta ez dira ezjakinak, argiak dira, baina engainatu egiten dituzte. FUNAI sartuta dauden indio askok, Alemaniak laguntzak iristen direnean beraientzako hartzen dituzte eta herriari ez zaio ezer iristen. Herritarrek ez dira honetaz konturatzen, oso isolatuta bizi dira eta jende honengan badute konfiantza, ezertan laguntzen ez dieten arren. Korrupzio ugari dago kontu hauetan, lotsagarria da.

USTELKERIA HAN NABARIAGOA AL DA HEMEN BAINO?

Espainia, Euskadi eta European mundu guztiak lapurtzen du, ez dagoelako politiko zintzorik. Baina han korrupzioa nabarmenagoa da,

lotsagarria da. Han ez dago ez presio sozial ezta hemen egon daitezkeen kontrol-mekanismorik. Jendea beldurrez dago, eta ez da ezer eskatzera ausartzen, ez da mobilizatzen. Nik eredutzat Euskadi jartzen diet, baina konturatu naiz hemen inoiz baino pasibitate handiagoa dagoela.

HAN ATZERRITAR SENTITZEN AL ZARA?

Ez, baina hangoek atzerritartzat naukate. *Gringo* deitzen didate, eta han 90 urte bizitzen banaiz ere beti *gringo* deitzen jarraituko dute. Hasieran *Dolar-gizona* deitzen zidaten, diru piloa nuela uste zuten, eta ez nuen sosik ere. Orain *gringo* esaten didate, baina errespetuz, herritarrek nahiz indigenek asko maite nautilako. Nik esaten diet balitekeela ni haietako batzuk baino amazoniarrago izatea, Amazonas haietako asko baino gehiago maite dudalako. Haietako asko Amazonas esplotatzeko bakarrik daude han. Ni ez, Amazonas berez dena delako gustatzen zait neri. Inguru hura

JOSEBA OSA - ITZULPENAK -

EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA

Tel / fax: 148065



ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telef. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Telef. 14 34 74
20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAI A Fax: 861067

izugarri gustatu zait eta ez nuke ezergatik aldatuko. Jendearekin ondo konpontzen naiz, eta beroarekin ere ohitu naiz. Hura da beroa, hura. Irailean joaten naizenean 37 °C inguru egongo dira eta urrian 45° tara iritsiko da, baina dagoeneko ohituta nago.

"Badago indigena izateaz lotsatzen den jendea. Nik ez dut ulertzen"

ETA ZUMAIA, ATZERRITAR SENTITZEN AL ZARA?

Ez, Zumaia nere herria delako eta Euskal Herria nere aberria. Ni Zumaian gustora nago, nere herria da. Nola sentituko naiz ba atzerritar Euskadin? Ez naiz atzerritar sentitzen ez han ezta hemen ere. Euskadi da nere lehen aberria eta Amazonas bigarrena.

NOLA IKUSTEN DUZU ORAIN EUSKAL HERRIA, HIRU URTEZ KANPOAN ZEHARO TOKI EZBERDIN BATEAN EGON ONDOREN?

Oso triste, dagoeneko jendea ez delako pertsona. Bueno, pertsona bai, baina itxurakeria asko ikusten dut eta jendeak nor bere burua engainatzen duela ikusten dut. Beren buruari gustora bizi direla erakutsi nahi diote eta ez da horrela. Ezinezkoa da pertsona bat hemen gustora bizitzea dagoen esplotazioa egonda, kaka bat diren eta pertsona kontsideratu beharrean eskulantzat hartzen zaituzten nagusi horiek egonda. Gizarteak gizatasuna kendu dio jendeari, hau da aspaldian ikusi dudaxerrikeriarik haundiena eta pena ematen dit.

Orain zorionsua naiz garai onean alde egin nuelako, eta penetan nago hogeit urte lehenago ez joan izanaz. Orain hemen dagoen gizarte-motagatik joan nintzen eta, neurri batean, baita jendearen konformismoagatik ere. Kontsumismoak egiten du jendea konformista, zorrez josita dago eta ez dago konformatzea beste aukerarik.


ZUMAIA KALE ALDETIK ASKO IBILI OHI ZARA, NOLAKO GIROA NABARITU DUZU? ASKO ALDATU AL DA HIRU URTE HAUTAN?

Nere adiskide zirenak, betiko lagunak kontsideratzen ditudanak, nere adinekoak interes propioekin ikusten ditut, akomodatuagoak: seme-alabak ere izan dituzte... Gazte garaian zituzten ideia haiek desagertu egin dira, ez da ezer geratzen. Jauntxoagoak dira. Neri pena ematen dit nere lagunak direlako eta maite ditudalako, eta ez dugu gauza hauetaz hitz egiten, beste edozer gauza komentatzen dugu. Ez zait axola, azkenean denok nahi dugunaren atzetik goaz, gero batzuek aurkitzen dute eta beste batzuek ez.

Eta gaztediari dagokionez, eta beti ere orokorrean, geure garaietako gaztedia baino okerrago ikusten dut. Oso kolgatuta dago, kanuto gehiegi dago. Nik kanutoak erre izan ditut eta hemen ere erretzen dut eskaintzen badidate, baina han ez. Nere zigarroa hartzen dut, nere zerbeza, baina bestelakorik ez. Pena ematen dit ez diedalako irteera garbirik ikusten.

"50 milioi eskeinuta ere ez nintzateke bueltatuko"

Lehen lantegietan ez ginen makinak, ia familiakotzat hartzen zintuzten enpresak zeudelako, baina gaur egun gauzak asko aldatu dira. Ez baduzu topera errenditzen kalera joan zaitezke eta gainera kontratu laburrak egiten dizkizute, hori lana ematen dizutenean. Nere ustez gaztedi hau akabatzen ari dira. Horrela gazteek zer egingo dute, ba porroak erre eta zerbeza edan, ezin pentsatu eta irteerarik topatu ezin.



Euskal Herrira itzuli denean oso triste ikusi du hemengo egoera.

TXOKOA
T
B
E
R
N
A



Artadi
Auzoa
86 21 89

GANBARA



TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

KABI



TABERNA - ZUMAI
Tfnoa: 143379

HEMENGO BIZITZA SOZIALA ETA DIBERTITZEKO MODUA OSO ERLAZIONATUTA DAGO TABERNA GIROAREKIN ETA FESTEKIN. HANGO JENDEA NOLA DIBERTITZEN DA?


Han ere asko gustatzen zaie edatea, baina hemen baino askoz gutxiago edaten da. Jendea tabernara joan eta bere zerbeza hartzen du, are gehiago, botikako alkohola ere edaten dute eta botila hauei romario deitzen diete. Indigenak bere komunitatea du eta herrian dagoena lagunarekin irtetzen da... baina taberna-giroa ez da hemen bezelakoa. Beren txalupa hartuta Andirá ibaian zehar ere ibili ohi dira eta hondartzara ere joaten dira, herritik txalupan ordubetera egon arren. Garbiagoa da.

"Ezinezkoa da hemen pertsona bat gustora bizitzea dagoen esplotazioa egonda"

Gauzez ez dago girorik, baina iruditzen zait beren bizimodua dibertsio bat dela egunean zehar. Nola ez dagoen konpromezu sendorik, nola ez den hau bezain lan-ordutegiari lotuta bizi den gizartea, nola gizarte garbiagoa, askeagoa den... iruditzen zait urte guztian zehar disfrutatzen dutela. Inbiditan egoten naiz, alaiago bizi direla ikusten dudalako. Dibertsioa han bizitzea da, han egotea. Gero, hori bai, garai honetan festa bat egiten dute eta festa zoragarriak izaten dira. Oso alaiak dira, festetan alaitasuna hemen ez bezela bizi dute.

EGIA AL DA TELEBISTA IKUSTEN ARI ZARETENEAN PALOMITAK JAN ORDEZ TXINGURRIAK JATEN DITUZUELA?

Zuriek ez dituzte jaten. Han badago txingurri bat indigenaz *sarrai* izenekoa eta jangarria den txingurri-mota bakarra da. Bertako indigenen ohitura da. Etxean telebista ikusten nagoela pepitak jan beharrean sarriak jaten ditut, piperrautsaren tankerako zapore pikantea dutenez asko gustatzen zaizkidalako.



Oraingo sistemarekin gaztedi hau akabatzen ari direla uste du Iñakik.

HAN JANARIDENDA BAT DAUKAZU. EZ AL DIZU PENARIK EMATEN ZUMAIARA ETORRI ETA ZURE FAMILIAK URTE ASKOAN EDUKI ZUEN METRO TABERNA ITXITA IKUSTEA? EZ AL ZENUEN INOIZ PENTSATU TABERNA ZEUK HARTZEA?

Urte batzuk badira, hamabost inguru, izeko Julik Metrorekin jarraitzea nahi ote nuen galdetu zidala, baina beste kezka batzuk banituenez eta ordurako alde egitea nahi nuenez ezetz esan nion. Orain itxita dago Metro taberna, eta nostalgiaz gogoratzen dut, baina bizitza aurrera doala ere pentsatzen duzu eta gauza bakoitzak bere momentua duela. Orain tabernak ez luke funtzionatuko.

Ez dira urte asko herriko gazteek izeko Juli eta izeko Mikaela omendu

E lkarrizketa

zituztela, baina arrain haundiak txikia jaten duen momentu bat iristen da. Orain musika topera jartzen duten tabernetara joan eta ezin duzu hitz egin; bakalao musika hori jartzen dute eta ni aluzinatuta geratzen naiz, lur jota. Metron, gainera, ez zegoen musikarik eta ezin duzu gazte bat horrelako leku batera eraman, gindilla eta tripaki batzuk jatera, aspertu egingo litzateke.

HONA BERRIZ ITZULTZEKO IDEIA BAZTERTU AL DUZU?

Bai, bai, bai, ez naiz berriz etorriko. Oporretara etor naiteke, orain bezela, baina hona bueltatzea, hemen bizitzea planteatzea... bihotzekoa emango lidake. Ez nintzateke inola ere itzuliko. Oraintxe bertan hona etortzeagatik 50 milioi eskainiko balidate, esango nieke "begira, zeuentzako gorde itzazue nik han irabazten dudanarekin nahikoa baitut jan ahal izateko eta horrekin konforme naiz". Zumaian nagoanean lagun eta ezagunekin oso gustora ibiltzen naiz, baina hemen bizitzea beste kontu bat da.

AMAZONASEN SUNTSIPEN-ARAZOA OSO GERTUTIK EZAGUTZEN DUZU. ZER IRITZI DUZU ZUMAIAN KIROL PORTUA EGITEARI BURUZ?

Hori Zumaiaren esku dago, eta hona elikatzerara datozen hegazti batzuk baldin badaude iruditzen zait paduran geratzeko eskubide osoa dutela. Esan dizut hori herriaren esku dagoela, baina nik dagoen bezala utziko nuke padura. Batek esan zidan "Bah, hona etortzen diren lau txori horiengatik!", ba lau txori badira lau txori dira, baina utziezu etortzen, beraiena ere bada eta nahikoa lapurtu diegu lehen ere, geratzaen zaien apur hori utziezu gordetzen. ■



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

Hi, nei basoa goraino, eeeh?




Uiii! Hondartzako Akelarrean arrautza prejituak txorixuakin. Hori da usai earra!



Hi Romu, hori dek estiloa! Bi eskuekin eta gainera kanpora!



Erritmo afrikarrekin...



... posible al da fandangua dantzatzea?

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15
Tlf: 862458




BISTADI-KUSTATEGUIA, 4-A
ZUMARRA
TEL. 862081

**HARATEGIA
URDATEGIA**




ENTER
INFORMATICA

Baltasar Etxabe kalea z/g
Tlf: 861175 - Faxa: 860550



Inixi, hurrengo urtean Lucia Lakarrari konpainia egiteko moduan hago.

Sagardoa prexkatzeko modu berezia asmatu zuten batzuek.




Aurtengo Poteo-Tourrean mekaniko eta guzti egon da.



Torniloren bat aldatzea ere beharko luke baten batek!

Pelotoiak Itzurungo malda gogorak errez menderatu zituen.



Talai-pen izan zen abituallamientua, marmitakoa.

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etxezarreta, 19
Telefona: 862342

20750 ZUMAIA

ONCE

**JOXE
MANUEL**

Orain astelehenetik ostegunera
KUPOI 150 pzta
BERRIAK!!



**IUSTA
TABERNA**
**EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20

Oikian ere badira festak

Orain artean Bertol Deunaren jaiak baztertu samarrak eduki baditugu ere, aurtengoan pare bat bueltatxo egin ditugu bertara eta argazki batzuk atera ere bai.



Epi, hainbeste atentzio jarritz gero, zeozer ikasiko dek!



Oikian modalitate berria asmatu dute: eskobing.



Alde batean urdaiaspikoa eta bestean Miss Oikia, zer gehiago behar dek Gorriti?



San Agustin egunean Pakoren Blanca izan zen indartsuena asto-proban. Horrelako laguntzaileekin nik ere errez eramango nuke harri koxkor hori!

Hurrengo urtera arte!!

ERROTA
ERROTA
 OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erbera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA


AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
 ZUMAIA

Telefonia: 862206


ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
 ZUMAIA

ESPANTAJOREN ORDU LATZAK









Poliki-poliki, presarik gabe

Kaixo Kattalin:

Aspaldian ez dugu elkar ikusi eta norbaitekin hitz egin beharra daukat. Zoratuta ote nagoen edo pentsatzen hasia naiz. Sexuari bu egin, nire sexualitateari buruz. Nire barnean zerbait ondo ez ote dagoen dudetan nabil, azkenaldian nire sexualagunarekin ez bainator bat. Hasia naiz sexu harremanetan, jolasetan, nire desioei atea, poliki-poliki, presarik gabe irekitzen, nire nahiak azalduz, nire beharrak aurkeztuz.

Gauzak horrela betiko modua (penetrazioa) ez nuela atsegin esan nion, beste gauza batzuk nahiago nituela. Burua eta ilea ferekatzeko eskatu nion; lepo ondolik sorbaldaruntz bere eskuekin joan-etorriko bide bat asmatzeko. Nire bizkarra goitik behera laztantzeko eskatu nion, poliki-poliki, zentimetro bakoitza aztertuz, presarik gabe, bertebraz bertebra, masaia moduan. Besoak ikutuz, luzera, leuntasuna nabaritzuz, mantso.

Ipur masailak, izterrak, hankak, tripa, titiak, artikulazio bakoitza aurkitzeko eskatu nion. Poliki-poliki, presarik gabe.

Nire gorputz osoa nolakoa zen ikusteko eskatu nion, sentitzeko, nirekin batera, ikutu bakoitzak sortarazten zidan zirrara. Nire desioa ezagutu zezala lo-ipurdi azalarazten zidan

lepazpian emandako muxu bakoitzak. Besarkadak eskatu nizkion, batak bestearen gorputza nabari zezan, barnetik, barnean. Nire desio bakoitza ulertzeko eskatu nion.

Bere usaina, bere zaporea dastatu nahi nituela, nire usaina, nire zaporea dasta zitzan nahi nuela. Poliki-poliki, presarik gabe.

Hitz goxoak eskatu nizkion, urduritasunak baretzeko, inposatutako aurreiritziak puskatzeko, zentzu guztiek parte har zezaten, poliki-poliki, presarik gabe.

Erotismoa, goxotasuna, fantasia, lasai-

tasuna eskatu nizkion. Badirudi ez zuela ezer ulertu, edo presa zuela, edo ez zekiela nola egin, edo ez ninduela emakume sexual bezala ikusi, edo...?

Nik dena poliki-poliki, presarik gabe eskatu nion. ■



XARA



GILANO
LIBERUDENDA

Paperdenda
Prensa
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Liburuak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxe. 860169

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Ume kantak Zumaian

Orain dela urte bete inguru, musika tradizionalaren inguruan lan egiten duen Oskorri taldeak Bizkaiko umeen kantak bildu zituen "Katuen testamendua" izeneko diskan. bilduma honi benetako balioa onartu genion eta azkar zabaldu ziren gure ume eta ikastola artean bertan jasotako kantak.

Arrakastaren arrazoia ez da harritzekoa "Pintxo pintxoren" nagusitasunaz naskatuta geundenon artean behintzat. Hala ere, Oskorri proposatutako bidea, herri bakoitzean galzorian dauden kantak berreskuratzea zen, gure umeen kanta bildumak aberasteaz gain, herrietako altxor folklorikoa desagertzen utzi gabe.

Era berean, Zumaian ere, topatuko ditugu haurren kantak bilatzen baditugu behintzat. Batzuk ezagunak dira, beste batzuk edadetuak besterik ez dakizkitez. Segidan idatziko dudana ezagunena da:

*"Paela zaharra zaharra
hiru zolokua
amak emango dio
ipurtzulokoa"*

Jolas baten barruan erabiltzen da, umearen burua eseritakoa norbaiten magalean jarrita, eskuarekin ipurdian kolpetxoak ematen zaizkion bitartean. Kanta bukatu ondoren egiteko zerbait proposatzen zaio umeari esaldi honen bidez: "jun, jun, jun eta ez dakit zer egin".

Horren ezaguna ez den beste kantak honela dio:

*"Eurixa zaharra zaharra
txalupatxuak etxera
Kontxesi Kontxesi aguro etxera!"*

Oskorri taldeak askotan kantatu dituen bi bertso ere hor daude. Bat jolas kanta da, lehen aitatutakoa bezalaxe, eta oso ezaguna da.



*"Zubiri zubiri
nongoari nongoari
seme alaba gera gu
Frantziako errege
baten seme alabak gera gu
zubi honetan azken azkena
pasatzen dana
hemen gelditu beharko du
hemen gelditu beharko du".*

Azkenik Oskorri "Katuen Testamentua" diskan jasotako kanta baten bi bertso ere badaude gure artean, nahiz eta zatiren bat falta seguruenik:

1	2
<i>"Kukurruku zer diozu buroko min zeinek egin azarixa non da bera basoan txotxak biltzen txotxak zertako sua iteko sua zertako arrautzak prejitzeko arrautzak zertako abariarentzako abaria zertako meza emateko meza zertako zeruko atek irekitzeko</i>	<i>"Kukurruku oilarra non da bera basoan txotxak biltzen txotxak zertako sua iteko sua zertako arrautzak prejitzeko arrautzak zertako abariarentzako abaria zertako meza emateko meza zertako arimak salbatzeko kukurruku</i>

Ismael Manterola Ispizua

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.



**AGUSTIN
ZUMEAGA**

Polita da. Usten det bizitza pixkat emango diola, ez? Kanpári eta paseoari ere bai, bizitza emango dío.



**JUAN LUIS
BERISTAIN**

Izugarri polita. Zumairako parrila ondo egiten badute, balekua. Egiten dana balekua izaten da eta.



**LIBE ALKIZA eta
MARIJE GOLMAIO**

Iruditzen zaigu pena bat dala parke baten erdian holako gauza bat jartzia. Benetan zerbait behar baldin bazan jarri atzerago, eta gainera beste edizio mota bat. Parkeak pila bat galdu du txiringito horrekin.

Zer iruditzen Gernika parkeko txiringittoa?



**GORKA IMAZ, IÑIGO SAN MARTIN
eta HARITZ PAREDES**

Ondo, jende asko etortzen da. Ez gera oraindik bazkaltzera etorri, baina laister etorriko gera. Janari ona ematen omen dute eta...



**ESTIBALITZ
ARRIZABALAGA**

Ondo, kanpa lehen baino hobeto dago, alai. Zeozer hartzen egon naiz, eta ondo.



**Mª CARMEN
PEÑA**

Lehen zeon bezela gehio gustatzen zitzaten. Orain, horrek zer probetxu edukiko dun herriantzat ez dakit nik.



**JUNE
ARANA**

Beraneantientzako ondo dago. Beste leku bat daukagu hor zeozer hartzeko edo egoteko, ta bueno, ondo dago.



**Mª PILAR
MANTEROLA**

Sobran daola. Ez zait iruditzen toki aproposa hortako. Gainera oso hurre dago pasealekutik. Pixkat atzerago egon ezker... Lotsagarri geratzen da.

ARRAIN ETA
MARISKOAK



BARAZKIAK

MARES

ETA

AURREZ

PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMALIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
 - * Banakoak
 - * Kolektiboak
 - * Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Etxabetarrei omenaldi beroa beren torneoaren 25. urteurrenean



Oso omenaldi polita jaso zuten etxabetarrek.

Etxabe Dinastia Torneoren 25. urteurrena aurten bete da eta horrelako zenbaki borobilak ezin dira edonola pasatzen utzi; hau kontuan izanik, ekitaldi ugari antolatu zituzten. Lehendabizikoa pelotari buruzko erakusketa baten inaugurazioa izan zen. Baina hau baino garrantzitsuagoak izan dira beste bi gauza; batetik, etxabetarren historia biltzen duen liburu eder eta txukun bat argitaratu da; bestetik, dinastiako etxabetar guztiak omendu ziren, banan-banan, gainezka zegoen Foronda kultur etxean egindako ekitaldi batean.

Etxabe Dinastia Torneoak zilarrezko ezteiak bete ditu aurtengoan eta ospakizunak ez dira nolanhikoak izan.

Abuztuaren 23an inauguratu ondoren, astebetean Oxford aretoan erakusketa bikaina egon da, pelotari buruzkoa. Bertan pelotaren historiaz gain, material eta erreminta ugari ikus zitekeen, eta argazki ederrak ere bai, asko etxabetarrenak.

Egun horretan bertan, ordea, etxabetarrek omenaldi hunkigarri bat jaso zuten, Forondan egindako ekitaldi batean. Kepa Gonzalezen diaporama zoragarri bat ikusi ondoren, ondoko orrialdean aipatzen dugun liburu interesgarria aurkeztu zen. Xabier Euzkitze bertsolari eta pelotazale ezaguna izan zen aurkezle

lanak egin zituen eta liburuaren egileak, Zumaiaiko Kirol Elkartekoak eta udaleko ordezkariak izan zituen ondoan.

Historia egin dute etxabetarrek, eta dinastia bizirik dago, gainera

Romualdo Artetxe, *Artetxe I* izan zen lehen oroigarria jaso zuena, bizirik dagoen dinastiako kiderik zaharrena izateagatik. Jarraian, dinastiako lehen partaidetik hasi eta azkeneraino, etxabetar guztiak omendu ziren, eta bakoitzak (edo familiarteko batek) pelota baten itxurako oroigarri polit bana jaso zuen.

Denetik bildu ziren han: gazteak, helduagoak, edadetuak, eskuz jokatu zutenak, erremontistak, palistak, puntistak... Eta dinastia bizirik egotearen seinalerik nabarmenena Luis Mari Alberdiren (Alberdi II) hutsunea izan zen, une haietan bertan Donibane Lohitzunen baitzegoen txapelketa bateko finala jokatzen, eta irabazi egin zuen gainera.

Historia egin dute etxabetarrek, eta ia ezinezkoa da garai batean bezela pelotaren munduan puntaren puntan ibiltzea, eskuz batez ere, baina hortxe dugu Luis Mariren kasua, profesionaltasunaren atarian.

NIKOL-ENEA
taberna
Amaiako plaza Tfnoa. 861440


LEIZE
Juan Belmonte 6
ZUMAIA
Tnoa: 860415

Omenaldi polita izan da baita ere Torneoaren azken fasean Odieta pelotalekura jende asko hurbiltzea eta finalean leporaino betetzea. Txapelketa honetatik oso jende ezaguna pasa da, asko gero profesionaletara pasa direnak: Eugi, Elgoro, Olaizola, Alustiza, Insausti, Otero, Daniel, Zeberio...

Baina egia esan, jendea ez da azkenaldian lehen bezela inguratu Odieta aldera. Ea aurtengoarekin txapelketa indarberritu eta norabide egokian aurrera egiten duen. ■



Oroigarria jaso zuten etxabetar guztiak, "famili argazkian".



EGILEAK: Eguzki Agirrezabalaga eta Andoni Alonso
ZUZENDARIA: Xabier Zabaleta
ERREDAKZIO KOMITEA: Luis Mari Alberdi, Josetxo Artetxe, Javier Carballo eta Ignacio Letamendi
ARGITARATZAILEA: Zumaiako Kirol Elkarte

Salneurria: 1.000 pezeta

LIBURU EDERRA

Horrelako liburu bat plazaratzeko garai egokia zela aprobetxatuz, abuztuaren 23an aurkeztu zen "Dinastia Echave" liburua. Aspalditik zetorren ideia zen, baina azken hilabete hauetan gauzatu den lana da. Etxabetarrek historia egin zuten, bai, eta horregatik beharrezkoa da historia hori hau bezelako lan batean bildu eta mundu guztiari, baina batez ere zumaiarroi, erakustea.

Sarreran Etxabe familiari buruzko argibideak ematen dira, "zuhaitz genealogiko" baten laguntzaz etxabetarrak ondo bereizteko. Honen ondoren liburuak hiru zati argi ditu:

Lehen zatian dinastiako partaide guztiak aztertzen dira, banan-banan. Normala denez, garrantzi gehien izan zuten kideek orrialde gehiago betetzen dituzte

(Etxabe II, III, IV...), eta garai hartako argazki asko agertzen dira. Antxon Alberdi kiderik gazte-eneraino iristen da kontaketa.

Bigarren zatian etxabetarrekin zerikusia izan duten federaziokide, kazetari eta pelotarien iritziak jasotzen dira, bai dinastiari eta baita torneoari buruzkoak ere. Gallastegi, Atano X, Ogeta, Tapia, Xabier Zabaleta eta beste hainbat lagunengatik iritziak biltzen dira.

Azken zatian, Etxabe Dinastia Torneoko 25 urte eta 24 edizioetako palmaresa eta emaitzak agertzen dira. Atal honetan ere argazki politik aurki daitezke, eta finaletako kronikatxoak ere bai.

Benetan liburu interesgarria da zumaiarrok apaletan gorde eta astia dagoenean patxadaz irakurri ahal izateko. Liburua herriko zenbait dendatan aurkituko duzu salgai.

SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Gidatzeko karnet guztiak

-Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
 -Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
 -Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAI

Casado-Oroz eta Tirapu-Rai, txapeldunak



Tirapu eta Rai, juxtu-juxtu, baina txapeldun.

Giro bikaina egon zen abuztuaren 31ean Odieta pelotalekuan eta bertan partidu ikusgarriak izan ziren. Pala motzean Casado-Oroz nafarrek 40-35 irabazi zieten Rekalde-Astigarraga bikoteari, lehenengoak partidu oso ona jokatu arren 17 urteko aurrelari donostiarrak huts dexente egin baitzituen.

Eskuz, Tirapu eta Raik 22-21 hartu zituzten mendean Berraondo eta Galarza. Azken honek eskua minduta bukatu zuen eta Berraondo antzuolatarrak sekulako lana egin arren ezin izan zuten azken tantua lortu.

Bestalde torneoan zehar txapela irabazi zuten guztiei omenalditxo bat ere egin zitzaien.



Bi bikoteak, erdian aurrekulari eta guzti. Hauek ondo hasi ziren baina...

URANGA ETA ELUSTONDO, GARAILE. Juxtu samar izan bazen ere bukaera aldera aurrea hartu eta 22-19 irabazi zuten Gorostola eta Menayoren aurka. Harmailetan sekulako giroa egon zen.

izerdi tantak

Alberdi II forma bikainean



Luis Mari Alberdi, Alberdi II, oso indartsu dagoela erakusten ari da, azkena jokatu dituen 4 torneoetan garaipena lortu baitu, hauetako bi Enbilekin.. Donibane Lohitzunen (2 aldiz), Donibane Garazi eta Hossegoren jokatu dituen partidu guztiak irabazi ditu. Hori da hori, etxabetarrei egindako omenaldia.

Sanchez bi lagunen aurka



Datorren larunbatean, hilak 7, Alex Sanchez palista profesionalak Arroa-Behean bertako bi onenen aurka jokatuko du desafioa, Lokatza eta Igor Olabideren aurka hain zuten ere..

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

kukutz

PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA



*KAMISETAK
*KAPELAK
*TXISKEROAK
*TXANDALAK
*PAPELEZKO
POLTSAK

Baltasa Etxabe 7 Tfnoa: 860569

ITSASKI supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

Aurten ere primerako denboraldia

Itsas-Gain taldeko piragunistek aurten ere izugarri lan polita egin eta sekulako denboraldia burutu dute. Hilaren 18an Tuy (Pontevedra) aldean amaitu zen Ibaietako Espainiako Kopan taldeka bigarren postua eskuratu dute, lehenengoekin puntutara berdinduta, gainera.

Dueron 2. postua lortu zuten, Bidasoan lehenbizikoa, Azagran (Nafarroa) 3.a eta Tuyen 5. postua. Baina aipatu beharra dago Itziar Lopez eta Marijo Mendizabalek osatutako bikoteari ez ziotela utzi azken froga honetan parte hartzen, astebete beranduago Suezian Munduko Txapelketa jokatu behar zutelako. Hauen puntuekin lehen postua eskuratzeko moduan izango ziren, zalantzarik gabe. Suezian lan bikaina



Zumaiarrek ia bezain ondo erantzun dute aurten ere.

egin zuen Itxas-Gaineko bikoteak eta 11. postuan helmugaratu ziren.

Abuztuaren hasiera aldean taldeka 10. postuan sartu ziren, eta Sellako karrera ezagunean hamaikagarren. Itxas-Gainekoek ez zuten hain

denboraldi borobila egiterik espero, jende asko kategoriz igo eta lehen urtean korritzen ari baitzen.

Zorionak guztioi, eta ea zuen lanak merezi duen ordaina jasotzen duen: patrozinadore on bat, adibidez. ■



Fibrazko untziarekin ere ezin izan du emaitza onik lortu.

Arrauneko denboraldia pata xamar joan da

Telmo Deunak Zumaiako banderan ezin izan zuen muturra lehen postuetan sartu, eta beharbada denboraldiko emaitzarik aipagarriena Euskadiko Txapelketan egindakoa izan daiteke, lehen egunean 5. postuan sartu baitziren.

Pena izan zen baita ere Ligarako sailkapenean aurreraxeago ez sartu izana. Kontxarako sailkapenean 17. sailkatu ziren, 7. postutik ia minutu batera. Lekeitioko banderan, hilaren 2an 4. postuan sartu ziren. Ea hurrengo urtean zerbait lortzen den!


goofy
HAUR JANTZIAK
Amalako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA


agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zubaitz-bidea, 1
20750 ZUMAILA Telefonoa: 862430


CORO PRIETO
Esteticista
Bonifazio Etxegarai plazatxoia z/g
Telefonoa: 861322

Batel txiki baten... Bermiotik Sokoara

Abuztuaren 21etik 24ra, eta laugarren urtez, estropada bitxi batek euskal kostalde osoa zeharkatu du, alde batetik bestera. Batteleku izeneko bateletan jokatu da, 11 elkartu dira guztira, eta hauen artean zumaiarrak.

TEINK Saria izena duen lasterketa honetan Kultura eta Kirola uztartzen dira. Batetik Iparraldea eta Hegoaldea elkartzen ditu eta hauen arteko harremanak sendotu nahi ditu. Bestetik, konpetizio kutsua duen estropada ez izan arren, ezinbestekoa da ondo prestatuta joatea lau egunak behar bezela aguantatzeko.

Hamaika batel izan dira aurtengo edizioan, 9 Iparraldekoak (hauen artean neskaz osatutako bat), Bizkaitik bat (Elantxobekoak, 2 neska eta mutil bat) eta Gipuzkoatik ere bakarra, zumaiarrek osatutakoa.




Iñaki eta Antxon, jo ta su arraunean.

Aitor Leiza, Inaxio Manterola, Iñaki Unanue eta Antxon Laskibar izan dira, txandaka, *Bizia* izeneko batelean arraunean aritu direnak. Ez diote sailkapenari garrantzirik eman nahi, bertan izan duten giro bikainari garrantzi gehiago ematen diotelako, baina oso aurrean ibili dira eta 4. postuan sailkatu dira, bi egunetan hirugarren sartu ondoren.

Egun bakoitzean zati bat kronometraturia izaten da, *estropa* izeneko, baina azken bi egunetan ez ziren jokatu, ia 6 metroko olatuak zeudelako itsaso zabalean. Nahikoa lan izan zuten portuetara iristen.

Gure portura abuztuaren 22an iritsi ziren batelak, Elantxobetik abiatu eta Mutriku bazkaldu ondoren. Aita Mari elkartean bapo afaldu ondoren Itsas Kiroldegia izan zuten atsedeneku, Donostiara irten aurretik.

Zumaiarrak oso gustora aritu dira eta esperientzia ederra izan dela aipatu digute, Euskal Herriko kosta oso gertutik eta lasai-lasai ezagutzeko aukera eman baitie. Gainera, harrera bikaina izan dute herri guztietan, baina batez ere Sokoan. Txaranga eta sirenekin ongiatorria eman ondoren, 300 lagun elkartu baitziren afari herriko batean. Hurrengo urtean bi batel bai? ■



Harrera ona izan zuten batelek Zumaian eta jende asko inguratu zen hurbiletik ikustera.

Izerdi
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705



**IPUIN
LEHIAKETA**

Hilaren 30ean amaituko da ipuinak aurkezteko epea. Ipuinak gutxienez 12 orrialde eduki beharko ditu eta lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Gogoratu lehen zumaiarrarentzako 125.000 pezetako saria dagoela.

MUSIKA IKASTAROAK

Aurten ere era guztietako ikastaroak egin ditzakezu Musika Eskolan: pianoa, biolina, kitarra, trikitixa, panderoa, txalaparta, dultzaina, eskuko soinua, saxoa eta abar. Argibide gehiago nahi duenak Nahikoa Musika Eskolara azaltzea, arratsaldeko 6etatik 8etara edo 861183 telefonora deitza.

.....
Udazkenean hasita nahi dituzun **IKASTARO** eta ekintzen berri eman dezakezu Forondan bertan. Gero ez esan aukerarik ez dagoenik. Udalak, bestalde, **BILERA** bat egin nahi du gazteekin. Deialdia egingo da.

**San Migelak
Artadin**

IRAILAK 27 OSTIRALA
Afari herrikoia
Dantzaldia

IRAILAK 28 LARUNBATA
Meza
Herri kirolak
Bertsolariak
Letamendia taldea
Jubilatuena bazkaria
Mountain Bike lasterketa
Zezeznak eta poniak
Letamendia
Rock kontzertua: AGE,
Atxantatu...

IRAILAK 29 IGANDEA
Meza Nagusia
Pelota partiduak
Txakolin dastaketa
Bertsolariak
Kaxiano
Arratsaldean zezanak
Bertsolariak
Kaxiano

**KAINOEN
JEITSIERA**

Irteera bat antolatu da Ordesa aldera hilaren 14 eta 15ean kainoiak jeitsi eta mendi travesia bat egiteko. Bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu beharko ditu (material guztia, aseguruia, gidak...) eta informazio gehiago Forondan emango dizute.



Gazte Batzordea ere beste mendi irteera bat antolatzen ari da. **Adi egon!**

**ARTE
MAHAINGURUA**

Irailan mahainguru bat egingo da (garaiz iragarriko da). Gaia: "Eskultura publikoa Euskal Herrian"



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etkezarrera, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330



FARGO
(1996) 97 min.

ZUZ.: Joel Coen
AKT.: William H. Macy
Steve Buscemi
Frances McDormand

Minneapoliseko kotxe saltzaile bat diru beharrean dago. Dirua lortzeko bere emaztea bahitzea pentsatzen du, haren aita aberatsa baita. Bahiketa burutzeko inguruko bi gaizkile kontratatzen ditu, baina kotxe saltzaileak ez dakiena zera da: bi gaizkileak inuzente hutsak direla, eta emaztearen aita ez dela berataz inola ere fio. Gainera, gauzak erabat nahasteko, herri txiki bateko polizi burua tartean sartzen da.

"Fargo" idazterakoan, Coen anaiek 1987an izandako gertakizun bat hartu zuten oinarritzat. Baina etzazue espero telefilme arrunt horietako bat, "Fargo" benetan pelikula bikaina bait da. Agian ez beraien maixu lana den "Muerte entre las flores" bezain ona, baina hala ere bikaina. Gainera, jende gutxik ulertu zuen pelikula bat egin ondoren ("El gran salto"), ongi ezagutzen duten zinema mota batera hurreratu dira Coen anaiek, zinema beltzera: beraien lehen filmek ("Sangre facil") eta "Fargo" k halako parekotasuna baitute.

Esan bezalaa, pelikula ederra, eta gainera Estatu Batuetan Hollywood-etik kanpo egiten den zinema ikusteko aukera.

Zine kritikak

EGIN DV Egunkaria

Fargo	★★★★	★★★★	★★★★
Zuz: Coen anaiek	★★★★	1/2	★★★★
Una jaula de grillos	★	—	—
Zuz: Mike Nichols			
Un loco a domicilio	—	★★	—
Zuz: Ben Stiller			



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza izazu ahal dezun neurrian



Euskaraz

- Gertaerak eta txistekak
- Bizkaiko bertsogintza I
- Oroimenaren hitza: ikastolen historia (1965-1975)
- Denboraren historia laburra
- Gelak eta zelaiaik
- Langosta baten inguruan

Gaztetxoentzat

- Ipuin arriskutsuak
- Gantz-upela
- Mateo Falcone

Gazteleraz

- El carro de heno *Eduardo Gil Bera*
- Las últimas sombras *Angel Lertxundi*
- Un polaco en la corte del Rey *M. Vázquez Montalbán*
- Juan Carlos *Vernor Vinge*
- La guerra de la paz
- La piedra que flota en el estanque *Juan Luis San José*

Haurrentzat

- Denboraren kanta-kontuak *Yolanda Arrieta*
- Astakiloak jo eta jo *Bernardo Atxaga*
- Sei lagun, sei sekretu *Jabier Muguruza*

ZALLA

Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK

OTARTEKOAK

OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387




Foto Amertze

Erriberka kalea 6
Tel / faxa: 861707

EGUZKI
PUB

KOHEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

1.200 lagunetik gora eta giro bikaina



Mr Bean edo Evaristo, sekula baino gazteago ikusi genuen.



Ktulukoek indar haundiz astindu zitzuten melenak.



La Pollak, ordu t'erdi baino gehiagoan, bata bestearen atzetik kanta ezagun gehienak jo zituen.



Eztarria eta behar zen guztia utzi zuten bertan Pribatu Shock-ekoek.

ΔΙΖΜΑΝ-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740 IRAETA -
ZESTOA

KALARI TABERNA
JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

Shock pribatua

PRIBATU SHOCK

PRIBATU SHOCK

Zumaian ematen ari den musika taldeen indartzea eta ugaltzea nabaria den honetan, lehenagoko zenbaki batzutan egin genuen moduan oraingoan ere, herriko talde bat aurkeztu nahi genizuke: **PRIBATU SHOCK** dira beraiek. Talde berria, musika munduan urte dexente daramatzaten partaidez osatua da **Pribatu Shock**. Eta egia esan, betetaria hori nabari sumatzen zaie beren abestien kalitatean, nahiz eskenatoki gainean agertzen duten segurtasunean.

Ktulu eta *La Pollarekin* eskaini ziguten kontzertu arrakastatsu haren aurretik, nerbioak sumatzen hasten ohi ziren unean, **Sito (Harkaitz), Aimar, Antxoka** eta **Egoitzekin** berriketalditxo bat izan genuen, eta hemen doakizue elkarrizketa haren fruitua.

Nonbaitetik hasi behar, eta, zer da Pribatu Shock?

Pribatu shock laguntalde bat da, musika atsegin duen laukote bat. Abestiak egin eta jotzeko elkartu gara. Antxokak bateria, Sitok baxua, eta Egoitz eta Aimarrek gitarrak jotzen ditugu, abesteaz azken bi hauek arduratzen direlarik.

Eta izena, zer izen da Pribatu Shock?

Bi aste burua txikitzen igaro eta gero irten zen zerbait da. Esanahi konkretu bat izatera iritsi gabe, hitzen joku hori da gustatzen zaiguna. Ez du inungo sekreturik.

Nolatan sartu zineten musika mundu honetan?

Beno, Aimar eta ni, Egoitz, A.G.E. taldeko Mikelekin hasi ginen gitarra jotzen. Harekin gitarraren ezagutza pixka bat egin ondoren,

Bururekin Musika Eskolan hasi ginen, eta geroztik, gure kontura ari gara, jardunaren jardunaz beti ere gauza berriak ikasten baitira. Antxokak berriz, ez du izan bateria jotzen irakatsi dion irakaslerik. Bere kabuz ikasi du bateria jotzen. Eta Sito, hasera batean gitarra ikasten hasi zen, baina gerora, taldearen beharrak zirela medio, baxua jotzen ikasi du.

Taldearen sorrera nola izan da?

Ba, taldearen sustraiak Serranilloren lokalean errotu ziren. Antxokak han jotzen zuen, eta Aimar eta Egoitz lokal horretan ensaiatzen hasi ginenean, Ladisekin batera *Frisbisstuff* taldea eratu genuen. Gerora, lokalarekin



1.000 lagun baino gehiagoren aurrean kantatu arren ez ziren kikildu.

KOSTA GAS



GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK

expert ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GURE TXOKOA

TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

izan genituen buruhausteak medio, Ladisek taldea utzi zuen, eta orduan, Sito elkartu zitzaigunean Pribatu Shock sortu zen.

Lokalaren arazoa aipatu duzue. Gauza jakina da hastapenetan dauden taldeei buruhausterik gehien materialak eta lokalak sortu ohi dizkiela. Alde horretatik zer moduz zaudete zuek?

Materiala, pixkanaka, eta bakoitzak ahal duen neurrian, ari gara osatzen. Horretarako kontzertuetan ematen diguten dirua ere laguntza handia izaten da guretzat. Lokalari dagokionez, lehen ensaiatzen genuenean arazoak izan genituen, eta orain, San Pedroko "kumunzulo" batean ensaiatzen dugu, baina gehiagorik ez dagoen bitartean...

"Geure abestiek estilo propio bat, estilo pribatua dutela uste dugu"

Nahiz eta asko ez izan, Udalaren aldetik keinu polita da lokalak uztea, eta gainera berriak egiten ari omen da, ezta?

Bai, zerbait bada. Baina lotsagarria da gudanako duten preokupazioa. Lokalen gaia orain dela bi urtetatik dago martxan, beti ere egitekotan, baina behin ere ez dute serio hartu. Gure ustez, herriko beste musikoek, hala nola banda edo



Abuztuan beste kontzertu batean ere egon ziren, Santion.

txarangak hainako eskubideak behar genituzke guk ere.

Gustoko taldeak zein dituzue?

Musika estilo desberdinak atsegin ditugu, eta barietate hori dela medio, gustoko taldeak asko ditugu, adibidez *Rage Against the Machine*, *White Zombie*, *Bob Marley*... Euskal taldeei dagokionez, *Bizkar Hezurraren* kalitatea asko apreziatzen dugu. *Bap*-ek duen estilo propioa ere atsegin dugu. Gustoko dugu *Ama Say* ere, *Negu Gorriak*...

Saiatzen al zarete, edo nahi gabe bada ere, ba al daukazu talderen baten influentziarik?

Saiatu behintzat ez gara beste talde batzuren estiloak kopiatzen saiatzen. Bertsio bat edo beste jotzen ditugu, baina geure abestiek estilo propio bat, estilo pribatua dutela uste dugu.

Zein talderekin joko zenukete gustora?

Egia esan, gu oso gustora gaude Ktulurekin jotzeaz, eta zer esanik ez La Pollarekin. Guretzat aurrerapauso handia suposatzen du, gure musika ezagutzera emateko aukera. Aukeran jariz gero berriz, Bizkar Hezurrarekin eta Bapekin jotzea atsegingo guke.

Kontzertuei dagokionez, zein izan da orain arte zuen traiektoria?

Talde bezala ez dugu kontzertu askorik eman. Egia esan ez dugu nahi ere, izan ere errepertorioa osatzen ari bait gara oraindik. Oraingoz abestiak egin nahi ditugu, eta gerora, iritsiko da kontzertuak emateko garaia.

Kontzertua ikusi ondoren, norbaitek taldeari deitzeko interesik badu, hemen dezue kontakturako telefonoa:

PRIBATU SHOCK
Tel.: 862329 (Egoitz).

IHINTZA
taberna
Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
O P A R I A K
Angeles Sorazu, 2 Telf. 14 30 85
20750 ZUMAIA Fax. 43 06 37
(Gipuzkoa)

JEMAR
LOREDE NDA
LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK
Erribera 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA



Motxian hi!

Nor: Ladis Rivas
Zer: *Barman in the Batz*

- EUSKAL HERRIKO BATZOKIRIK MARTXOSOENA OMEN DA HEMENGOA?
- BAI, EUSKAL HERRIKO REGGAERIK ESCLUSIBOENA JARTZEN DUGU.**
- NOIZKO REGGAE KONTZERTUA BERTAN?
- REGGAE EZ DAKIT, BAINA LASTER EGINGO DEGU AKUSTIKO BAT.**
- IHINTZAN HIRE ARTELANAK IKUSGAL ARTISTA BAT EGINDA HAGO!
- NI? BAI ZERA. EZ DET DENBORARIK GALTZEN, BESTERIK EZ.**
- TAILARIK EMATEN AL DEK?
- EZ DET USTE.**
- RASTEN ILEA JARTZEKO PREST?
- ORAINTE JARRIKO NITUZKE, BAINA LANIK GABE GELDITUKO NINTZATEKE. ILE LUZEA UZTEN ARI NAIZ, KADENA PERPETUA BUKATUTAKOAN ILE RASTAK JARTZEKO.**
- MARIHUANA DROGA OMEN DA, ARDOA EZ.
- MARIHUANA BELAR BAT DA, TOMATEA BEZELA. EZ MARIHUANA EZ ARDOA EZ DIRA DROGAK, NEURRIA HARTUZ GERO BIAK ERE ONAK.**
- ORUJORIK EMATEN AL DEZUE BATZOKIAN?
- JODE AITA GALLEGOA DEK, EEEH? ORUJO OSO ONA ETA BAITA OLARRU GALLEGOA ERE.**
- DISKO BAT.
- BURNING SPEAR-EN "LIVE IN PARIS".**
- EUSKAL HERRIKO TALDE BAT?
- DUT, OSO ONAK DIRA. BAP ERE BAI.**
- KIROI BAT?
- SURFA IZUGARRI GUSTATZEN ZAIT.**
- BAKALAU NOLA?
- SAGARDOTEGIAN, SAGARDO ONAREKIN.**

Kontu-kontari

ZUMAIARRAK ETA MARMOKA-ZOPA

Herriko kuadrila bati afari eder bat modu onean egiteko gogoia sartu eta ondoko plan hau antolatu zuten: Itzurunen marmoka edo medusa piloa bildu eta lehenbailehen Azpeitia aldera abiatu ziren. Hango jatetxe batera sartu eta etxeoandreari azaldu zioten nola marmoka-zopa jateko asmoa zuten eta ea prestatuko zien berak, erreza zela: ura irakiten zegoela marmokak bota behar ziren lapikora eta tapa jarrita 3 minutu eduki behar ziren, juxtu-juxtu, ez segundu bat gehiago, ez gutxiago. Emakumea konforme, joateko lasai txikiteora.

Kuadrila bueltatu zenean etxeoandrearen apurua! Ez zekiela zer pasa zen, baina marmokak desagertu egin zirela! Zumaiarrak hasarre, 3 minutu baino gehiago edukiko zuela esan zioten. Emakumeak ezetz, baina lasai egoteko, ea zer nahi zuten, ordainetan afaltzen emango ziela eta. Hara nola zumaiarrak bapo jan eta ezpainak garbitu eta kalera irten zuten, xaputarren ezjakintasunaren kontura.



CARLIN

OFIMARKET

FOTOKOPIAK ETA ENKOADERNAZIOAK.
PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN
OSAGARRIAK

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
- 24 orduetan
- Zeure etxean
- Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR
FOTOKOPIAK



-Enkoadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 1-1, behea - Tlf: 143120

KLASEAK

7 kate atera ditut eta klaseak hartu nahi nituzke. Nork emango lizkidake? Utzi enkargua merkatu txikian.

Eneko, kanbiyuai beira hasi eta iya paeta jo? Ez diat kotxeik utziko...

AGURRAK

Aitor. Zer moduz orgasmua? (edaria, alegiya)

Paelas! Goizeko seyak eta kanpaya jotzen? Nahikua yu hi!!

Animo Zumaiko estudiante jendia! Ez da askoik falta-ta examin danak akabatzeke.

Apis, Apix, Apis tomate ze ona zauden...

Ganbarako artistak arte-mota berria asmatu du: **PINTURA REBERSIBLIA!** Geniyua hi!

Josu, Monte Perdidora Baleike kamixetarekin iyo eta kamarik ez?? Ze, galduta?

Buzoya agurrez betetzen bada orijinalenak aukuratuko ditugu. Baleike.

Salmenta puntuak

- JESUSKOA
- ERROTA (ERRIBERA)
- ERROTA (BASADI)
- ERROTA (J.BELMONTE)
- OGI BERRI (AMAIA)
- OGI BERRI (BASADI)
- ARKUPEOKINDEGIA
- AIZPURUALIBURUDENDA
- OLANO LIBURUDENDA
- LOITZ LIBURUDENDA
- ALAI JANARIDENDA
- NIKOL KAFETEGIA
- INPERNUPE
- ZALLA ERRETEGIA
- FOTO GAR
- ARROA BEHEA
- SAN TELMO JANARIDENDA



Laster...

BALEIKE-BUZOYA!!

Irailaren bukaerarako Erribera kalean buzoi gorri polit eta distiratsu bat jartzeko asmotan gera. Horrela zuen gutunak, iritziak, proposamenak, mezuak, agurrak eta beste hainbat gauza errezago jaso ahal izango ditugu. Lehiaketako erantzunak ere bertan uzteko aukera izango dezue.

Ez badiguzue ezer bidaltzen ez dezue Baleikeren barkaziyurik izango, erredios!!

AHOLKULARITZA
JRURE
ASESORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel.: 851485




UROLA TXIRINGITOA

Eguneko menua
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656

LEHIAKETA



Maddi, Irati, Nere, Ander, Egoitz eta Aitzol izan dira lehengo hileko kamixetak jaso dituztenak, zeuden tokietatik postal bana bidali zigutelako. Aitzol inola ere ez genuen besteen ondoan jartzerik lortu eta Ander ere kostata! Haundi xamarak badituzte ere Kolakao asko hartuta haziko dira ume jator hauek. Eta bitartean kamisoi modura erabil ditzakete.

Oraindik ere postal batzuk jasotzen ari gerala kontuan hartuz, hilabete

honetan ere

3 kamixeta eder

zozketatuko ditugu irailaren 20a baino lehen jasotzen ditugun postalen artean.

Urritik aurrera hasiko gera berriz ere tartak zozketatzen.

Bitartean, Zumaiatik bada ere, idatzi!

Baleike kamixetak!!

Oraindik ere ZALLA eta NIKOLen salgai daude udaran atera genituen kamixeta mundialak.

Mangamotzak 1.200 pezeta
(L eta XL tailak)

Tirantedunak 1.000 pezeta
(M-L-XL)

MUGITU ZAITEZ, TAILA EGOKIA
TOPATU NAHI BADEZU!

